



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko azaroaren 14a

136. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/ITP-00039. Interpelazioa, saltoki txikien arloko politika orokorrari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (3. or.).
- 11-25/ITP-00040. Interpelazioa, enpresa-munduan nazioartekotzeko politika orokorrari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (3. or.).
- 11-25/MOC-00156. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Bizikidetzaren Nafarroako II. Plan Estrategikoaren zirriborroari egindako ekarpenei buruzko eztabaida egiteko deialdia egin dezan. Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu du (4. or.).
- 11-25/MOC-00157. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita txosten bat egin dezan haurren eta nerabeengan, zuzenean nahiz zeharka, inpaktua duten politikak sostengatzen dituzten aurrekontuko zenbatekoei buruz. Isabel Aramburu Bergua andreak aurkeztu du (5. or.).
- 11-25/MOC-00158. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen baitira gure nekazari eta abeltzainek egiten duten lan handia aintzatets dezaten, bermatzen baitituzte Espainiako landa-eremuetan eta eremu abandonatuetan populazioaren finkapena eta hazkunde ekonomikoa, kalitatetik goreneko nekazaritzako elikagaien bidezko elikadura-segurtasuna, gure nazioaren elikadura-subiranotasuna eta gure mendietan suteen prebentzioa. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (6. or.).
- 11-25/MOC-00155. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita FITUR 2026 nahiz gainontzeko azoketan parte hartzetik kanpo utz dezan Israel. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetzea (11. or.).
- 11-25/MOC-00116. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kontratazio publiko-prozesuak alda ditzan. Ekonomia eta Ogasun Batzordeak onetsi du (12. or.).
- 11-25/MOC-00132. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala kontratatu dezan kanpo-auditoretza bat, independentea eta gardena, Cometa sistemaren kontratuaren, funtzionamenduaren eta fidagarritasunaren gainekoa, barne hartuko dituen esleipen- nahiz ezarpen-fasea eta oraingo zerbitzu-ematea. Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordeak ezetsi du (12. or.).

- 11-25/MOC-00136. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu eta Hezkuntzako kontseilaria premiatzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza publikotik at manten dezaten kutsu politiko edo ideologiko argiko mezu oro. Hezkuntza Batzordeak ezetsi du (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/POR-00399. Galdera, Martzilla eta Alesbes lotzen dituen NA-660ko zubiaren konponbide teknikoari, aurrekontuari eta exekuzio-epeei buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00395. Galdera, Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Nafarroako 2025-2028 Plan Estrategikoko ekintzak burutzeko epeak ezartzen dituen kronogramarik ote dagoen jakiteko. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00396. Galdera, azken bi ikasturteotan LH Dualean parte hartu duten enpresetan Nafarroako Gobernuak egindako ikuskapenei edo egiaztapenei buruzkoa buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (15. or.).
- 11-25/PES-00397. Galdera, LH Dualerako Nafarroako programei, finantzaketa-lerroei edo pizgarri fiskalei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (16. or.).
- 11-25/PES-00398. Galdera, Gobernuak Nafarroan LH Dualeko programak egokitzeko eta lan-merkatuaren beharrianak aldi-aldi aztertzeo darabiltzan organoei, mahai sektorialeiei eta behatokiei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (17. or.).
- 11-25/PES-00399. Galdera, Nafarroako LH Dualeko ikasleek ikasketak bukatu eta 6 hilabetera eta urtebetara duten laneratze-tasari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00400. Galdera, Nafarroan LH Dualerako bideratzen den aurrekontuari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00402. Galdera, Leireko monasterioan BAI prestakuntza-programaren lehen urtea emate aldeira Leireko beneditarren erkidegoarekin izandako lankidetzari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (19. or.).
- 11-25/PES-00403. Galdera, lehendakariak Santos Cerdánekin eta Antxon Alonsorekin bazkaririk egin ote duen jakiteko. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (20. or.).
- 11-25/PES-00404. Galdera, Iruñeko Hizkuntza Eskolan euskara-eskakizunik gabeko plazak betetzeko lehiaketa publikoari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (20. or.).
- 11-25/PES-00405. Galdera, Artistaren Estatutua Nafarroako errealitatera egokitzeari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (21. or.).
- 11-25/PES-00406. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Traumatologia Zerbitzuko medikuntzako lehenbiziko kontsultei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (22. or.).
- 11-25/PES-00407. Galdera, gizarte-zerbitzuetako haurren eta nerabeen programan Maestro Ávila fundazioaren ikastetxeko adingabeak direla-eta irekitako espedienteei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (23. or.).
- 11-25/PES-00408. Galdera, Beangoetxea etxean Maestro Ávila fundazioaren izenarekin ezarritako ikastetxeari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (24. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/ITP-00039. Interpelazioa, saltoki txikien arloko politika orokorrari buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako interpelazioa, saltoki txikien arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujok Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Saltoki txikiek, gertuko saltokiek gizarte-kohe-sioa sortzen, jarduera eragiten, hirietako auzoak bizitzaz betetzen eta herri txikienetan biztanleak finkatzen laguntzen dute inondik ere. Bere neurrian, Nafarroa hainbat ikuspuntutatik garatzen laguntzen du.

Horregatik, saltoki txikien arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2025eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-25/ITP-00040. Interpelazioa, enpresa-munduan nazioartekotzeko politika orokorrari buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako interpelazioa, enpresa-munduan nazioartekotzeko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernu-ko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujok Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Gaur egungo mundu globalizatu honetan, enpresen nazioartekotzea prozesu estrategikoa da, helburu duena kanpoko salmentak areagotzea eta esportazioak dibertsifikatzea. Faktore horrek, gainera, eragina du haren berrikuntzan eta lehiakortasunean.

Horregatik, enpresa-munduan nazioartekotzeko politika orokorrari buruzko honako interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2025eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-25/MOC-00156. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Bizikidetzaren Nafarroako II. Plan Estrategikoaren zirriborro-ari egindako ekarpenei buruzko eztabaida egiteko deialdia egin dezan

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Bizikidetzaren Nafarroako II. Plan Estrategikoaren zirriborroari egindako ekarpenei buruzko eztabaida egiteko deialdia egin dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Memoria eta Bizikidetzaren Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Memoria eta Bizikidetzaren Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

2024ko abenduaren 23an iragarri zen foru agindua sinatu zela "Nafarroako Gobernuaren II. Bizikidetzaren Plana burutzeko prozesu parte-hartzaileari eta departamentuarterkoari hasiera emateko, Foru Komunitateak datozen urteetan giza eskubideen, bakearen eta aniztasunaren arloan izango dituen erronka nagusien inguruan".

Memoria eta Bizikidetzaren Kanpo Ekintza eta Euskara Departamentuaren prentsa-oharrean jasotzen zen bezala, plangintza horren helburua zen "eremu eta maila desberdinetako aniztasuneko bizikidetzari modu zabal eta irekian heltzea, Nafarroaren ibilbidea eta errealitatea kontuan hartuta, baina baita egungo Europako eta munduko testuingurua ere, inboluzio-mehatxuez beteta".

Era berean, Olló kontseilariak adierazi zuen bezala, helburua honako hau zen: "Prozesu transbertsal eta parte-hartzaile bat aktibatzea, bizikidetzaren ibilbide-orria eguneratzera eramango gaituen, errespetutik demokraziaren, giza eskubideen, bakearen eta aniztasuneko bizikidetzaren arloan testuinguru propio, nazioarteko eta aldakor eta zorrotz batean, indarkeria ororen deslegitimaziotik abiatuta. Eta hori guztia ahalik eta adostasun handienarekin".

Joan den irailaren 28an amaitu zen Bizikidetzaren Nafarroako II. Plan Estrategikoaren zirriborroari ekarpenak egiteko fasea. Horretarako pres-

tatutako gunean egin diren zazpi proposamenak daude, baita erretiratu den beste proposamen bat ere.

Parlamentuko alderdi politikook ekarpenak egiteko aukera izan genuen urriaren 10era arte, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zerbitzuko zuzendariaren bitartez.

Bizikidetzaren Nafarroako II. Plan Estrategikoa onartzeko prozesuaren faseek aurreikusten dutenez, planaren "azken idazketa" 2025eko irailaren 29tik 2025eko azaroaren 16ra bitarte egingen da, eta parte hartzeko prozesura bideratutako gunean, oraingoan, ekarpen horietako bakar baten berri ere eman ez denez, talde parlamentariok gure ekarpenen berririk jaso ez dugunez, ez eta deialdirik jaso ere, eta ikusirik "Onespena: Bizikidetzaren Nafarroako II. Plan Estrategikoa Nafarroako Gobernuari helaraztea, onar dezan" deritzon fasea 2025eko azaroaren 17tik 2025eko azaroaren 30era bitarte egingen dela, Ollo kontseilariak Bizikidetzaren Nafarroako II. Plan Estrategikoaren parte hartzeko prozesuaren

aurkezpenean iragarritako helburuak lortzeko, eta helburu horiek izanik "ondoren parte hartzeko prozesu bat artikulatzea, barne mailakoa eta nahitaez departamentu artekoa izan dena, eta baita erakunde arteko beste bat ere (toki entitateak, Parlamentua, unibertsitateak...), gizarteko hainbat eragilerekin harremanetan", honako mozio hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Bizikidetzaren Nafarroako II. Plan Estrategikoaren zirriborroari egindako ekarpenak eztabaidatzeko bilkura baterako deia egin dezan, bai jendaurrean jartzeko fasean egindako ekarpenak, bai talde politikoei Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zerbitzuen bidez egindakoak eztabaidatzeko.

2. Saio hori Memoria eta Bizikidetzaren, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordean egitea, plan hori onartzeko ezarritako kronograma errespetatuz.

Nafarroan, 2025eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: M.^a Isabel Olave Ballarena

11-25/MOC-00157. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita txosten bat egin dezan haurrengan eta nerabeengan, zuzenean nahiz zeharka, inpaktua duten politikak sostengatzen dituzten aurrekontuko zenbatekoei buruz

ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita txosten bat egin dezan haurrengan eta nerabeengan, zuzenean nahiz zeharka, inpaktua duten politikak sostengatzen dituzten aurrekontuko zenbatekoei buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko Isabel Aramburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozio honen jarraipena Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak egingen du.

Zioen azalpena

Bai Estatuko araudiak, bai nazioartekoak (horien mugarririk nabarmenena 1989ko azaroaren 20an Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako "Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa" da) ezartzen dutenez, haurrei dagokienez, haurren interes gorena beste edozein interesen gainetik egon behar da beti.

Egia esan, pobrezia-tasa desberdinak, aukeraberdintasunean dagoen arrakala, babesgabatasun-egoerak edo osasun mentalaren esparruko zailta-

sunak, besteak beste, biztanle horiengan premia-koagoak dira, eta horien arabera, gaur egun bere garapen eta ongizate egokirako erakundeen laguntza behar duen biztanleria-sektore bat baldin bada, hori, zalantzarik gabe, haurrak eta nerabeak dira.

Politikak, neurriak eta ekintzak gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa da baliabideak eta finantzaketa egokia izatea.

Nafarroan, horren harira, Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022ko Foru Legeak honako hau jasozten du:

“5. artikulua. Lehenetsuna aurrekontuetan.

1. Foru Komunitateko Administrazioak bere aurrekontuetan jasoko ditu lehenetsunez Foru Komunitate honetako adingabeen zailtasunen atzemate goiztiarra eta horiek konpontzeko bitarteko-koen aktibazioa, sustapena, arreta, heziketa, babesa, gizarteratzea, integrazioa eta aisialdia; kon-

tsignazio hori handituko da gutxienez ere gastumugaren gehikuntza adina, gastu-muga handitzen denean. Gastu-muga handitzen ez bada, mantenduko dira, baldin eta foru lege honen xede diren beharrak murriztu ez badira”.

Legearen puntu hori bete ahal izateko, gauzatu ahal izateko, kuantifikatu behar da zer neurritan eskaintzen dituen Foru Administrazioak baliabide ekonomikoak gure erkidegoan hurrei eta nerabeei aitortzen zaizkien eskubideak betetzen direla bermatzeko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du Nafarroako haur eta nerabeengan zuzenean eta zeharka eragina duten politiken oinarri diren aurrekontu orokorretan esleitutako zenbateko ekonomikoek buruzko txosten bat egin dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

11-25/MOC-00158. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen baitira gure nekazari eta abeltzainek egiten duten lan handia aintzatets dezaten, bermatzen baitituzte Espainiako landa-eremuetan eta eremu abandonatuetan populazioaren finkapena eta hazkunde ekonomikoa, kalitaterik goreneko nekazaritzako elikagaien bidezko elikadura-segurtasuna, gure nazioaren elikadura-subiranotasuna eta gure mendietan suteen prebentzioa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez zeinaren bidez Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen baitira gure nekazari eta abeltzainek egiten duten lan handia aintzatets dezaten, bermatzen baitituzte Espainiako landa-eremuetan eta eremu abandonatuetan populazioaren finkapena eta hazkunde ekonomikoa, kalitaterik goreneko nekazaritzako elikagaien bidezko elikadura-segurtasuna, gure nazioaren elikadura-subiranotasuna eta gure mendietan suteen prebentzioa.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Talde Mistoko foru parlamentari eta VOXeko kide Emilio Jiménez Románek honako mozio hau aurkezten du, 2025eko azaroaren 13ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena

Lehen sektoreak espainiar guztioi ematen digu jaten. Gure nekazariak eta abeltzainak dira janaria gure mahaira eramaten dutenak, eta horiek dira, bipartidismoak gobernatzeko dituen administrazioek oztopo guztiak jartzen dituzten arren, gure elikadura-subiranotasuna bermatzen dutenak. Gizon eta emakume arduratsu horiek, pertsekuzioa eta tratu txar sistematikoa gorabehera, bizitza ematen diote landa-munduari, eta egunero atsedenik gabe lan egiten dute beren ustiategiak aurrera ateratzeko, zeinetako asko gurasoengandik seme-alabengana igaro izan diren, gure Nazioaren arima eta izate den tradizioa mantenduz.

Gure nekazariak eta abeltzainak belaunaldiz belaunaldi egiten ari diren lan goresgarriari esker, gure Naziorako oinarritzkoa eta estrategikoa den sektore bat eraiki ahal izan da, funtsezko zeregina duena kulturaren, demografiaren, gizartearen, basogintzaren eta ekonomiaren arloetan, zeinak bereziki garrantzitsuak diren Espainia landatar eta hustuarentzat. Lehen sektorearen garrantzi ekonomikoa, ekonomia nazionalaren testuinguruan, Espainiako Estatistika Institutuak Kontabilitate Nazionalen argitaratutako kopuruen bidez baloratzen da. Espainiako Estatistika Institutuaren Kontabilitate Nazionalaren datuen arabera, lehen sektorearen balio erantsi gordina 40.412 milioi eurora iritsi zen 2024an, eta hori BPGaren % 2,5 izan zen. Horren gainetik daude, garrantzi ekonomikoari begira, eraikuntzaren sektorea (BPGaren % 5,3), industriarena (% 14,2) eta zerbitzuena (% 69,1). Orobat, lehen sektoreak lanaldi osoko 680.200 lanpostu baliokide sortu zituen, 2023an baino % 1,8 gutxiago, eta hori Espainiako lanaldi osoko landun baliokideen % 3,4 izan zen.

Landa-eremuetan biztanleria finkatzeak eta Espainia landatarraren garapen ekonomikoak bezala, nabarmena da lehen sektoreak geostrategian eta osasun publikoan duen inpaktu izugarria, sektore giltzarria baita elikadura-segurtasuna eta -subiranotasuna bermatzeko garaian; izan ere, arlo horiek garrantzi handikoak dira egungo nazioarteko egoera nahasiari erreparatzen badiogu, bai eta azken urteetan detektatutako alerta sanitarioen gorakadari ere, gure nekazari eta abeltzainei exijitzen zaizkien eskakizun fitosanitario berberak betetzen ez dituzten Europar Batasunetik kanpoko produktuak masiboki sartzeko ari baitira.

Gainera, ezin dugu ahaztu gure nekazariak eta abeltzainak –baita ehizaren eta basogintzaren sektoreko profesionalek ere– zeregin oso garrantzitsua betetzen dutela suteak prebenitzen eta itzaltzen, nahiz eta instituzioek bazterreratu egin dituzten hainbat hamarkadatan. Adibide gisa, abeltzaintza-

eta ehiza-ustiategiaren, artzaintzari esker nabarmen murriztu daiteke material erregaiaren karga, eta, bestalde, gure nekazaritza-ustiategiak, uzta ondorengo garbiketa-, laborantza- eta suebaki-lanekin, modu aktiboan laguntzen dute sugarren hedapena geldiarazten. Erraz sumatzen da funtzio horien garrantzia, joan den udan gure Nazioa erraustu zuten suteen ondorio suntsitzaileak ikusita.

Hala ere, sektoreak gure ekonomian duen pisua handia izaten jarraitzen badu ere, ikusten dugu ezen, hamarkada bakar bat baino gutxiagoan, mila-ka nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategi itxi behar izan direla. Datu ofizialen arabera, hamarkada bakar batean –2013tik 2023ra– Espainiak 180.000 ustiategi baino gehiago galdu ditu. Argi dago gaitz hori gure esparruaren errentagarritasun ekonomikoaren aurrean fanatismo klimatikoa lehenesten duten politiken emaitza zuzena baino ez dela; horrek, gure lehen sektorearen zahartze nabarmenarekin eta belaunaldi-erreleborako sustapen instituzionalaren faltarekin batera, arrisku larrian jartzen du sektorearen beraren biziraupena etorkizun ez oso urrun bati begira.

Denborak erakutsi du popularrek eta sozialistek partekatzen duten agenda klimatikoa –bai Bruselan, bai gure instituzio nazionaletan– heriotza-epaia dela gure landa-ingurunerako. Hamarkadetan zehar, bipartidismoak gauza bat esan du hemen Espainian, baina gero kontrakoa bozkatu du Bruselan, erabakiak hartzen diren lekuan. Popularrak eta sozialistak gupidagabeak izan dira landa-ingurunearekin Espainian, eta mota guztietako arauak eta zergak ezarri dizkiete ekoizleei, baina gero otzanak ziren eta Bruselak inposatzen zien guztia asumitzen zuten.

Ingurumen- eta klima-fanatismo horren froga paradigmaticoa da Europako Itun Berdea (EIB) eta haren babespean garatutako arau guztiak. Tresna hori, NPEren aurrekontu-murrizketa etengabeekin eta ingurumen-betekizunen hazkunde esponentzialarekin batera, heriotza-epaia da lehen sektore nazional eta europarrarentzako, aspaldian hilzorian baitago.

Gure lehen sektorearen etorkizuna arriskutik libre izanen da, soil-soilik, adostasun aurrerakoiak fanatismo klimatikoari amaiera ematen badiu, ekoizpen-kostuen hazkunde esponentziala arintzen badu, lauza burokratikoak eta hipererregulazioa desagerrarazten badiu, lehen sektore komunitarioaren printzipioa, elkarrekikotasuna, merkatu bakarra eta finantza-elkartasuna bermatu eta lehia desleiala deuseztatzen badu, eta belaunaldien arteko erreleboa benetan sustatzen duten politikak bultzatzen badiu, sektorea gure gazteentzat erakargarri eginez.

Bide horretatik joan beharrean, duela gutxi ikusi ahal izan dugu adostasun aurrerakoiak truke-txanpon gisa erabiltzen duela gure lehen sektorea: lehenik, etorkizuneko NPEren proposamenarekin, bigarrenik, Mercosurrekin gauzatutako akordioarekin, eta, azkenik, EB-Maroko Akordioa aldatzeko proposamenarekin.

Lehenik eta behin, Batzordeak planteatzen duen NPEren etorkizuneko erreformak, orain arte NPEri esleitutako aurrekontuaren % 22ko murrizketa gehigarria ezartzeaz gain, ezabatu nahi du, era berean, hirurogei urte baino gehiago igaro ondoren, politika berezi hori babestu duen aurrekontu-autonomia. Horrek esan nahi du zuzeneko laguntza gutxiago nekazarientzat, inbertsio gutxiago modernizazioan eta, azken batean, etorkizun txikiagoa landa-eremurako eta gure elikadura-subiranotasunerako.

Bigarrenik, Mercosurren eta EBren arteko akordioak erakusten digu, beste behin, Bruselak truke-txanpon gisa erabiltzen duela gure lehen sektorea hirugarren herrialdeekin egindako merkataritza-akordioetan. Horrek, praktikan, Europar Batasunetik kanpoko nekazaritzako elikagaien lehia desleialaren hazkunde esponontziala baino ez du ekarri, eta, kasu zehatz honetan, bereziki eraginen die gure ekoizleei arlo hauetan: behi-azienda eta etxeko hegaztiak, azukrea eta arrosa, zitrikoak, eztiak, tomateak –berez, Marokoko tomateen inportazioek eragin handia dute sektore horretan– eta erremolatxa, beste askoren artean.

Azkenik, EB-Maroko Akordioa aldatzeko proposamena adimenaren aurkako eraso handia da, eta popularren eta sozialisten batzordearen zentzugabekeria legal eta morala ere. Izan ere, aurrean daukagun adibideak argi eta garbi erakusten digu adostasun aurrerakoiak Bruselan gauza bat egin eta maila nazionalen guztiz kontrakoa esaten duela, espainiarrek joan den urriaren 16an, osteguna, Diputatuen Kongresuan ikusi ahal izan zuten bezala, VOXen mozio bati esker, Behe Ganberak baztertu egin baitzuen Batzordeak EBJaren epaia betetzea saihesteko maniobra. Hori guztia, Auzitegiaren epaiaren irmotasuna gorabehera: EBk eta Marokok muga-zergen lehentasunak Mendebaldeko Saharara hedatzeko lortu zuten akordioa legez kanpoko zen. Gogorra da ikustea nola, ia hamar urteko kalbario judicialaren ondoren, Úrsula von der Leyenen Batzordeak berriz ere makurtu den Marokoren interesen aurrean. Kaltetuek, betikoek, gure nekazariak, jarraitu beharko dute ekoizpen-estandar berberekin ekoizti ez diren milaka tona nekazaritza-produktuen lehia desleiala jasaten.

Gogora dezagun Marokok Espainia gainditu duela tomate-esportazioetan EBren barruan, guztiz onartezina dena. Argi dago Bruselako eliteek nahi dutela Maroko "Europako ortu berria" izatea, eta, horretarako, gure lehen sektorea, gure landa-mundua, desegin behar dute, eta gure elikadura-segurtasuna eta -subiranotasuna desagerrarazi ere.

Faktoreen konbinazioa –aurrekontu-murrizketak, NPE politika berezi gisa desagertzea, Itun Berdeari eustea, merkataritza-itun kaltegarriak, hala nola Mercosurrekin eta Marokorekin egindakoak, eta ekoizpen-kostuen igoera geldiezina– benetako erloju-bonba bat da Europako landa-eremurako. Hau ez da kasualitatea, baizik eta popularrek eta sozialistek Bruselan hamarkadetan ezarritako eta Espainian gure nekazariak abandonatu dituzten alderdiek txalotu dituzten politiken emaitza.

Espainiako landa-eremuak ezin du jarraitu landa-ingurunea inoiz zapaldu ez duten burokrata batzuek hartzen dituzten erabakien biktima izaten. Bada garaia gure elikadura-subiranotasuna eta Espainiako esparruaren biziraupena arriskuan jarri dituztenak seinalatzeko. Premiazkoa da PPK eta PSOEk, instituzio guztietatik, bereizketarik gabe, amaitutzat eman dezatela fanatismo klimatikoa, gure landa-eremua kriminalizatu besterik egin ez duena, Europar Batasunetik kanpoko herrialdeen interesak lehenesten zituen bitartean.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu aitor dezaten gure nekazariak eta abeltzainek egiten duten lan handia, eta berma ditzaten biztanleria finkatzea eta hazkunde ekonomikoa Espainia landatarean eta hustuan, elikadura-segurtasuna kalitate goreneko nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren bitartez, gure Nazioaren elikadura-subiranotasuna eta suteen prebentzioa gure mendietan.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu gaitzets dezaten Batzordeak etorkizuneko NPERako aurkeztutako proposamen-zirriborroa, eta exiji dezaten berehala proposamen berri bat, aurrekontu-murrizketarik jasoko ez duena, ingurumen-betekizunak nekazaritza-ustategien errentagarritasun ekonomikoaren gaintik lehenetsiko ez dituen, eta NPEk orain arte politika berezi gisa izan duen aurrekontu-eta politika-autonomia luzatuko ez duena, Funts Erkidean sartuko baitu.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu erabat bazter dezaten Europako Itun Berdea, ondorio larriak izan baititu Espainiako ekonomian, bereziki gure

lehen sektorean. Era berean, susta dezaten Europako Itun Berdean eta 2030 Agendan oinarritutako politika guztiak indargabetzea, bereziki Baserritik Mahaira Estrategia eta Biodibertsitatearen aldeko Estrategia, eta azterlan bat egin dezaten Europako Itun Berdearen eta 2030 Agendaren ondoriozko politikek Espainian izan duten eragin ekonomiko eta sozial negatiboa aztertzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu bultzatzen natura-ingurunearen eta paisaiaren benetako kontserbazioa, gure lehen sektorearen jardura babestearekin eta errespetatzearekin batera. Era berean, susta dezaten arau-esparru bat gure nekazaritza-lurzoruak eta natura-ondarea energia berriztagarrien ugaritze indiskriminatuaren aurka babesteko.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu Europako instantzietan exiji dezaten erkidego-lehentasunaren eta elkarrekikotasunaren printzipioa berreskuratzea eta aplikatzea merkataritza-akordio guztietan irismen orokorreko printzipio juridiko gisa, betiere Espainiako lehen sektorearen interesen alde, elikadura-subiranotasuna eta -segurtasuna bermatzeko. Horretarako, elkarrekikotasun-printzipioa bermatu beharko da, ispilu-klausulak sartuz EBra inportatutako nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-produktu guztietan, zeinek Espainiako ekoizleek betetzen dituzten eskakizun guzti-guztiak bete beharko dituzten, hala nola ingurumen- eta klima-arlokoak, burokratikoak, fitosanitarioak eta lan-arlokoak.

6. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du areagotu ditzan mugako kontrolak, bermatzeko inportatutako produktuen % 100ek EBko barne-araudiak betetzen dituztela eta dagozkien merkataritza-akordioetan ezarritako kuotaz kanpoko eragiketarako ezarritako zerga oro ordaintzen dela. Ildo horretan, susta dezan Estatuko portuetako mugako ikuskapen-postuetako langileen, materialen eta nekazaritzako elikagaien analisi-zentron zuzkidura handitzea, bereziki nekazaritzako eta abeltzaintzako inportazio handiak dituzten gunetan. Ez da inola ere onartuko Europar Batasunetik kanpoko estatu esportatzaileak edo produktuaren salerosketa-katean esku hartzen duen beste edozein subjektuk egindako produktuaren adostasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpenik.

7. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu susta dezaten behar diren lege-aldaketak egitea kontsumitzaileengana iristen diren produktuen jatorriari buruzko etiketatze-estandar argiak ezartzeko, eta jatorriz Espainiakoak ez diren produktuak "Espainia-

ko jatorria" balute bezala merkaturatzea irmoki zigortzeko.

8. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu lehenbailehen geldiaraz ditzaten Marokon eta Espainiari lehia desleiala egiten dion Europar Batasunetik kanpoko edozein herrialdetan nekazaritzako elikagaien proiektuak finantzatzera bideratutako Espainiako funts publikoen transferentziak, eta exiji dezaten haien nekazaritza-sektorea finantzatzera bideratutako Europako funtsak etetea.

9. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu berehala eten dezaten Marokoren eta EBren arteko nekazaritza-akordioa, kalte ekonomiko handia eragiten baitio Espainiako eta Batasuneko nekazaritzako elikagaien ekoizpenari. Era berean, exiji dezaten merkataritza-akordioak Espainiako eta Europako lehen sektorean duen inpaktu ekonomiko eta sozialari buruzko txostena egitea.

10. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu EBren eta Marokoren arteko merkataritza-akordioak eteten ez diren bitartean, ez dezala onartu EB-Maroko Elkartze-Akordioa aldatzea Mendebaldeko Saharatik datozen laboreak lehentasunezko muga-zergen bidez sartzeko, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2024ko urriaren 4ko epaia betez.

11. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu bazter dezaten EB-Mercosur merkataritza-akordioa Espainiako ekoizleen interesei eta, zehazki, lehen sektoreari, landa-munduari eta haien bizimodu tradizionaleri kalte egiten dien guztian. Era berean, exiji dezaten merkataritza-akordioak Espainiako eta Europako lehen sektorean duen inpaktu ekonomiko eta sozialari buruzko txostena egitea.

12. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu EBko instituzioen aurrean sala dezaten Europako Batzordearen opakutasuna Mercosur akordioaren negoziazioan eta tramitazioan. Europako nazioek, Europako Parlamentuak eta nekazaritzako elkarte eta erakundeek jakin gabe egin baita negoziazio hori.

13. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu EBn exiji dezaten EBko lurraldean debekatutako fitosanitarioekin tratatutako hirugarren herrialdeetako nekazaritzako elikagaien inportazioa debekatzea.

14. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du susta dezan Nekazaritzako Aseguruen Espainiako Sistemaren berrikuspina, Espai-

niako landa-eremuaren beharren aurrean indartzeko.

15. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu berma dezaten Elikadura-katearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 12/2013 Legea behar bezala aplikatzen dela, Espainiako nekazarien eta abeltzainen babesa eta errentagarritasuna bermatzeko.

16. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu bultzatzen dezaten benetako sinplifikazio burokratiko eta administratiboa, gure lehen sektoreak jasaten dituen administrazio-izapideen bolumena eta konplexutasuna nabarmen murrizteko.

17. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu atzera dezaten 2027ko urtarrilaren 1etik haratago landakoaderno digitala martxan jartzea, sistema digitalen irisgarritasun eta segurtasun osoa bermatu arte.

18. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu bultzatzen dezaten belaunaldi-erreleboa landa-eremuan, gazteei nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueran sartzeko laguntza eskainiz haien iraunkortasuna eta profesionalizazioa bermatzeko neurrien bidez, bai eta nekazaritzako elikagaien kooperatibetan sartzea sustatuz ere.

19. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu bultzatzen nekazaritza-jarduera duintzeko eta aberastasuna eta enplegua sortzen egiten duen ekarpen erabakigarria sendotzeko neurriak, bai eta nekazaritzako elikagaien kooperatibismoak Espainiako landa-ingurunean duen zeregina berariaz aitortzeko ere.

20. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu susta dezaten uraren plan nazional bat, lurralde nazional osoko ur-baliabideen –euri-urak, lurpeko urak, ur gatzgabetuak, gezatuak eta leheneratuak– kudeaketa arrazionala jasoko duena eta, elkartasunaren eta ondasun komunaren printzipioetan oinarrituta, arroen interkonexioa barne hartuko duena testuinguru klimatologiko kaltegarriari aurre egiteko funtsezko neurri gisa, eta espainiar guztiek ura izatea bermatuko duena, Espainiako toki guztietan.

21. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu susta dezaten lur ureztatuen plan nazional bat, azalerak

modernizatzen lagunduko duena, ura modu eraginkorragoan erabiltzeko eta kontsumo-bolumena murrizteko.

22. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu ehiza har dezaten kultura-ondare komuntzat eta espezieak kudeatzeko, gure ingurune naturala kontserbatzeko eta Espainia landatarraren garapen sozioekonomikorako funtsezko jardueratzat. Halaber, artzaintza har dezala landa-eremua eta mendia babesteko eta suteen aurkako prebentziorako beharrezko jardueratzat.

23. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu abian jar dezaten suteak prebenitzeko eta kudeatzeko estrategia nazional egiazko eta berri bat, non funtsezko zeregina izanen duten abeltzaintzaren, nekazaritzaren, ehizaren eta basogintzaren sektoreetako gure profesionalak.

24. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu egin dezaten hitzarmen bat Espainiako eskualde guztiekin, lizentzia nazional bakarra ezartzeko ur kontinentaletako ehizarako eta arrantzarako, bai eta parke nazionaletan ehiza-jarduera ahalbidetzeko beharrezkoak diren legegintza-neurriak abiarazteko ere.

25. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu susta dezaten otsoaren plan nazional bat egitea, barne hartuko dituen ehiza-kontrol egokia, errola eguneratua eta abeltzainei eragindako kaltearekiko proportzionala den konpentsazio-sistema, eta otsoa Babes Bereziko Erregimenean dauden Espezie Basatien Zerrendatik kanpo uztea lurralde guztietan, bereizketarik egin gabe –bereziki Duero ibaiaren hegoaldean dauden populazioak–, baldin eta otsoa kontrolik gabe ugaltzen ari bada eta gure abeltzainei etengabeko kalteak eragiten badizkie. Era berean, basurde-populazioak kontrolatu behar dira, ehiza-jardueraren bidez.

26. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu exiji diezaioten Europako Batzordeari salbuespenez erabil daitezkeen fitosanitarioak baliatzeko animalien eta landareen osasunari eragiten dioten izurrite inportatuak, Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetatik datozen produktueta sartutakoak, kontrolatzeko eta desagerrarazteko. Era berean, ez dezaten debekatu substantzia fitosanitarioak erabiltzea, baldin eta landareen eta animalien osasuna bermatzeko alternatiba eraginkorrik ez badu.

27. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu aurrera egin dezaten zientzia eta teknologiaren erabileran, bereziki edizio genomikoko teknika berrietan, nekazaritzak eta abeltzaintzak dituzten erronkei aurre egiteko beharrezko tresna gisa.

28. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu sor dezaten kontingentzia-funts bat animalien eta landareen osasunari eragiten dioten izurriteek kaltetutakoentzat, agintariek gomendatutako tresnek eta erabilitako bitartekoek –oro har, baimenduta daudenek–

izurritea prebenitzeko, kontrolatzeko edo desagerarazteko balio ez duten kasuetarako.

29. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu bultza dezaten eskoletan eta ikastetxeetan plan espezifikoak egitea, nekazaritzak eta nekazariak elikagaien ekoizpenean, natura-ingurunearen zaintzan eta lurraldearen kontserbazioan betetzen duten funtsezko zeregina ezagutzera emateko.

Iruñean, 2025eko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/MOC-00155. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita FITUR 2026 nahiz gainontzeko azoketan parte hartzetik kanpo utz dezan Israel

KULTURA, KIROL ETA TURISMO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetu dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita FITUR 2026 nahiz gainontzeko azoketan parte hartzetik kanpo

utz dezan Israel. Mozioa 2025eko azaroaren 7ko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00116. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kontratazio publikoko prozesuak alda ditzan

EKONOMIA ETA OGASUN BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordeak 2025eko azaroaren 11n onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kontratazio publikoko prozesuak alda ditzan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1.- Datozen 9 hilabeteetan kontratazio publikoko prozesuak aldatu ditzan eta erregelamendu bidez arautu ditzan, kudeaketa digitalaren bidez bermatze aldera balorazio kualitatiboak eginen direla proposamena adjudikaziodun suertatzen

ahal den enpresarekin edo eskaintza horren gaineko balorazio-elementuekin lotzeko inolako aukerarik gabe, eta, horrela, balorazioan joera jakinak sortzea eragozteko.

2.- Datozen 9 hilabeteetan kontratazio publikoko prozesuak aldatu ditzan eta erregelamendu bidez arautu ditzan, kudeaketa digitalaren bidez bermatze aldera kontratazio-mahaiko kide bati baino gehiagori dagozkien balorazio kualitatiboak ez direla partekatuko eta ez direla eskuragarriak izanen beste ezein kiderentzat, harik eta balorazio horietako bakoitza digitalki erregistratuta egon arte”.

Iruñean, 2025eko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00132. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala kontratatu dezan kanpo-auditoretza bat, independentea eta gardena, Cometa sistemaren kontratuaren, funtzionamenduaren eta fidagarritasunaren gainekoa, barne hartuko dituen esleipen- nahiz ezarpen-fasea eta oraingo zerbitzu-ematea

LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUN BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordeak, 2025eko azaroaren 11n egindako bilkuran, ezetsi egin du María Isabel García Malo andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala kontratatu dezan kanpo-auditoretza bat, independentea eta gardena, Cometa sistemaren kontratuaren, funtzionamenduaren eta fidagarritasunaren

gainekoa, barne hartuko dituen esleipen- nahiz ezarpen-fasea eta oraingo zerbitzu-ematea. Mozioa 2025eko urriaren 3ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00136. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Hezkuntzako kontseilaria premiatzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza publikotik at mantentzen dezaten kutsu politiko edo ideologiko argiko mezu oro

HEZKUNTZA BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2025eko azaroaren 11n egindako bilkuran, ezetsi egin du Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Hezkuntzako kontseilaria premiatzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza publikotik at man-

ten dezaten kutsu politiko edo ideologiko argiko mezu oro. Mozioa 2025eko urriaren 14ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00399. Galdera, Martzilla eta Alesbes lotzen dituen NA-660ko zubiaren konponbide teknikoari, aurrekontuari eta exekuzio-epeei buruzkoa

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egindako galdera, Martzilla eta Alesbes lotzen dituen NA-660ko zubiaren konponbide teknikoari, aurrekontuari eta exekuzio-epeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduak xedatzen duenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer irtenbide tekniko, zer epe eta zer aurrekontu aurreikusten da Martzilla eta Alesbes lotzen dituen NA-660ko zubiaren egoera behin betiko konponetzeko?

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

11-25/PES-00395. Galdera, Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Nafarroako 2025-2028 Plan Estrategikoko ekintzak burutzeko epeak ezartzen dituen kronogramarik ote dagoen jakiteko

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Nafarroako 2025-2028 Plan Estrategikoko ekintzak burutzeko epeak ezartzen dituen kronogramarik ote dagoen jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Joan den urriaren 13an aurkeztu zen "Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Nafarroako 2025-2028 Plan Estrategikoa". Plana Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Nafarroako Institutuaren webgunean kontsulta daiteke.

Dokumentu horretan, «4. eginbeharra: azken txostena» izenekoan, garatu beharreko ekintzak proposatzen dira hainbat fitxatan.

Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Nafarroako Institutuak argitaratutako dokumentuan jasotakoa ikusita, eskertuko genuke galdera hauen erantzuna jasotzea:

1.- Ba al dago ekintzak betetzeko epeak ezartzen dituen kronogramarik?

2.- Egin al da garatuko diren ekintzen kostuaren aurrekontua jasotzen duen oroitidazki ekonomikorik?

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-25/PES-00396. Galdera, azken bi ikasturteotan LH Dualean parte hartu duten enpresetan Nafarroako Gobernuak egindako ikuskapenei edo egiaztapenei buruzkoa buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, azken bi ikasturteotan LH Dualean parte hartu duten enpresetan Nafarroako Gobernuak egindako ikuskapenei edo egiaztapenei buruzkoa buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

LH Duala tresna estrategikoa da ikasleen enplegarritasuna hobetzeko eta Nafarroan prestakun-

tzaren eta produkzio-sarearen arteko lotura indartzeko. Behar bezala ezar dadin, bermatu egin behar dira prestakuntzaren kalitatea, lan-baldintza egokiak eta sare ekonomiko osoaren parte-hartze orekatua, enpresa txiki eta ertainak eta landa-enpresak barne.

Kontrol parlamentarioaren eginkizuna behar bezala betetzeko eta ereduaren garapen eraginkor, garden eta ekitatiboa bermatzeko, honako galdera hauek egiten dira, Nafarroako LH Dualaren benetako ezarpena ebaluatzea ahalbidetuko duten datu zehatzak, adierazleak eta neurri espezifikokoak lortzera bideratuta.

1. Zenbat ikuskapen edo egiaztapen egin du Nafarroako Gobernuak LH Dualean parte hartu duten enpresetan azken bi ikasturteotan, sektoreka eta lurraldeka xehakaturatuta? Zenbat intzidentzia detektatu dira?

2. Zer gainbegiratze- eta egiaztatze-protokolo espezifiko aplikatzen du Hezkuntza Departamentuak enpresek LH Dualaren araudian aurreikusitako lan- eta prestakuntza-baldintzak betetzen dituztela bermatzeko?

3. Zer prozedura aurreikusten da ikasleek LH Dualaren esparruan laneko gorabeherak edo abusuak komunikatu ahal izateko? Zenbat jakinarazpen edo kexa jaso da prozedura ezarri zenetik?

4. Gobernuak ba al du zehapenak ezartzeko edo akreditazioa kentzeko sistemarik LH Dualaren baldintzak betetzen ez dituzten enpresentzat? Erantzuna baiezkoa bada, zenbat zehapen ezarri dira edo zenbat akreditazio kendu dira?

Iruñean, 2025eko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: M.^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/PES-00397. Galdera, LH Dualerako Nafarroako programei, finantzaketa-lerroei edo pizgarri fiskalei buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, LH Dualerako Nafarroako programei, finantzaketa-lerroei edo pizgarri fiskalei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

LH Duala tresna estrategikoa da ikasleen enplegagarritasuna hobetzeko eta Nafarroan prestakuntzaren eta produkzio-sarearen arteko lotura indartzeko. Behar bezala ezar dadin, bermatu egin behar

dira prestakuntzaren kalitatea, lan-baldintza egokiak eta sare ekonomiko osoaren parte-hartze orekatua, enpresa txiki eta ertainak eta landa-enpresak barne.

Kontrol parlamentarioaren eginkizuna behar bezala betetzeko eta ereduaren garapen eraginkor, garden eta ekitatiboa bermatzeko, honako galdera hauek egiten dira, Nafarroako LH Dualaren benetako ezarpena ebaluatzea ahalbidetuko duten datu zehatzak, adierazleak eta neurri espezifikoak lortzera bideratuta.

1. Zer programa, finantzaketa-lerro edo pizgarri ekonomiko espezifiko jarri du abian Nafarroako Gobernuak enpresa txiki eta ertainak eta landa-enpresak LH Dualean sartzea laguntzeko? Zein izan da urteko aurrekontua?

2. Zenbat landa-enpresak parte hartu dute LH Dualean azken bi ikasturteotan? Zer portzentaje egiten dute guztizkoarekiko?

3. Aurreikusi al du Gobernuak laguntza tekniko edo tutoretza publikoko figura bat sortzea landa-eremuko enpresa txiki eta ertainei LH Dualaren kudeaketan laguntzeko? Erantzuna baiezkoa bada, zer maiztasun eta baliabiderek in eginen da hori?

Iruñean, 2025eko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: M.^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/PES-00398. Galdera, Gobernuak Nafarroan LH Dualeko programak egokitzeko eta lan-merkatuaren beharrianak aldian-aldian aztertzeo darabiltzan organoei, mahai sektorialeiei eta behatokiei buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Gobernuak Nafarroan LH Dualeko programak egokitzeko eta lan-merkatuaren beharrianak aldian-aldian aztertzeo darabiltzan organoei, mahai sektorialeiei eta behatokiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

LH Duala tresna estrategikoa da ikasleen enplegarritasuna hobetzeko eta Nafarroan prestakun-

tzaren eta produkzio-sarearen arteko lotura indartzeko. Behar bezala ezar dadin, bermatu egin behar dira prestakuntzaren kalitatea, lan-baldintza egokiak eta sare ekonomiko osoaren parte-hartze orekatua, enpresa txiki eta ertainak eta landa-enpresak barne.

Kontrol parlamentarioaren eginkizuna behar bezala betetzeko eta ereduaren garapen eraginkor, garden eta ekitatiboa bermatzeko, honako galdera hauek egiten dira, Nafarroako LH Dualaren benetako ezarpena ebaluatzea ahalbidetuko duten datu zehatzak, adierazleak eta neurri espezifikoak lortzera bideratuta.

1. Zer organo, mahai sektorial edo behatoki erabiltzen du Gobernuak lan-merkatuaren behar-rak aldizka aztertzeo eta LH Dualeko programak egokitzeko? Zer maiztasunekin biltzen dira?

2. Zer adierazle erabiltzen du Nafarroako Gobernuak prestakuntza-eskaintza duala produkzio-sarearen beharretara egokitzen ote den neur-tzeo? Zer bilakaera izan du azken bi urteotan?

3. Zein da batez besteko epea enpresen prestakuntza-premia bat identifikatzen denetik premia horri loturiko LH Dualaren eskaintza egu-neratu edo sortu arte?

Iruñean, 2025eko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: M.^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/PES-00399. Galdera, Nafarroako LH Dualeko ikasleek ikasketak bukatu eta 6 hilabetera eta urtebetera duten laneratze-tasari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Nafarroako LH Dualeko ikasleek ikasketak bukatu eta 6 hilabetera eta urtebetera duten laneratze-tasari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

LH Duala tresna estrategikoa da ikasleen enplegarritasuna hobetzeko eta Nafarroan prestakuntzaren eta produkzio-sarearen arteko lotura indar-

tzeko. Behar bezala ezar dadin, bermatu egin behar dira prestakuntzaren kalitatea, lan-baldintza egokiak eta sare ekonomiko osoaren parte-hartze orekatua, enpresa txiki eta ertainak eta landa-enpresak barne.

Kontrol parlamentarioaren eginkizuna behar bezala betetzeko eta ereduaren garapen eraginkor, garden eta ekitatiboa bermatzeko, honako galdera hauek egiten dira, Nafarroako LH Dualaren benetako ezarpena ebaluatzea ahalbidetuko duten datu zehatzak, adierazleak eta neurri espezifikoak lortzera bideratuta.

1. Zein izan da Nafarroako LH Dualeko ikasleek ikasketak bukatu eta 6 hilabetera eta urtebetera duten laneratze-tasa, zikloaren eta sektorearen arabera xehakaturik, azken hiru urteotan?

2. Argitaratuko al du Nafarroako Gobernuak txosten periodiko eta publikorik LH Dualaren arrakasta-adierazleei buruz (laneratzea, abandonua, gogobetetzea, prestakuntzaren jarraitutasuna)? Erantzuna baiezkoa bada, zer maiztasunarekin egingen da hori?

3. Zer hobekuntza-neurri ezarri du Gobernuak prestakuntza-zentroek prestakuntza amaitu duten ikasleei egindako inkesten emaitzen ondorioz?

Iruñean, 2025eko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: M.^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/PES-00400. Galdera, Nafarroan LH Dualerako bideratzen den aurrekontuari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Nafarroan LH Dualerako bideratzen den aurrekontuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

LH Duala tresna estrategikoa da ikasleen enplegagarritasuna hobetzeko eta Nafarroan prestakuntzaren eta produkzio-sarearen arteko lotura indartzeko. Behar bezala ezar dadin, bermatu egin behar dira prestakuntzaren kalitatea, lan-baldintza egokiak eta sare ekonomiko osoaren parte-hartze orekatua, enpresa txiki eta ertainak eta landa-enpresak barne.

Kontrol parlamentarioaren eginkizuna behar bezala betetzeko eta ereduaren garapen eraginkor,

garden eta ekitatiboa bermatzeko, honako galdera hauek egiten dira, Nafarroako LH Dualaren benetako ezarpena ebaluatzea ahalbidetuko duten datu zehatzak, adierazleak eta neurri espezifikoak lortzera bideratuta.

1. Zein izan da azken bi ekitaldiotan Nafarroan LH Duala ezartzeko eta garatzeko berariaz bideratutako aurrekontua, eta zein da hurrengo bietarako aurreikuspena?

2. Zenbat teknikari edo ikuskatzaile esleitu dira Nafarroan LH Dualaren kontrola eta jarraipena egiteko, eta zenbat enpresak parte hartzen dute gaur egun programan?

Iruñean, 2025eko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: M.^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/PES-00402. Galdera, Leireko monasterioan BAI prestakuntza-programaren lehen urtea emate aldera Leireko beneditarren erkidegoarekin izandako lankidetzari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Leireko monasterioan BAI prestakuntza-programaren lehen urtea emate aldera Leireko beneditarren erkidegoarekin izandako lankidetzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zertan datza Nafarroako Foru Komunitatearen eta Leireko beneditarren erkidegoaren arteko lankidetzari, BAIren prestakuntza-programaren lehen urtea Leireko monasterioan eman ahal izateko, <https://bai-institute.com/webgunean> 2025eko irailaren 16an argitaratutako prentsa-oharrean jakinarazten den moduan?

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00403. Galdera, lehendakariak Santos Cerdánek eta Antxon Alonsorekin bazkaririk egin ote duen jakiteko

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, lehendakariak Santos Cerdánek eta Antxon Alonsorekin bazkaririk egin ote duen jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Gobernuko lehendakariak, legegintzaldi hone-tan edo aurrekoan, bazkaririk izan al du Santos Cerdán eta Antxon Alonso jaunekin Iruñeko edo Iruñetik kanpoko jatetxeren batean?

Erantzuna baiezkoa bada, bazkari bakoitzaren data(k), lekua(k) eta bertaratuak adierazteko eskatzen dut.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

11-25/PES-00404. Galdera, Iruñeko Hizkuntza Eskolan euskara-eskakizunik gabeko plazak betetzeko lehiaketa publikoari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Iruñeko Hizkuntza Eskolan euskara-eskakizunik gabeko plazak betetzeko lehiaketa publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Eneka Maiz Ulaiarrek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren maiatzaren 12ko 1282/2025 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuko C mailako lanpostu hutsak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdiak onetsi ziren (lanpostu horiek I. eranskinean zerrendatzen dira).

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren maiatzaren 12ko 1283/2025 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuko D mailako lanpostu hutsak lekualdatze-lehiaketa

bidez betetzeko deialdiak onetsi ziren (lanpostu horiek I. eranskinean zerrendatzen dira).

Aipatutako deialdien arabera, ordea, Iruñeko Hizkuntza Eskolako Plantilla Organikoko plazetako bakar batek ere ez du euskarako hizkuntza-eskakizuna. Zehazki, honako plaza hauek:

Atezaina (plaza-zenbakia: 37451)

Zerbitzu orokorrak (plaza-zenbakia: 32900)

Administrazioa (plaza-zenbakiak: 37439, 31158 eta 32307)

Kontuan hartuta hizkuntza-zentro bat dela eta bertan euskara erabiltzea beharrezkoa dela, bai idatzizkoan, bai ahoskoan (dokumentuen kudeaketa, webgunearen edukia, jendearentzako zuzeneko

arreta...), horrek harridura eta ezinegona eragin ditu. Neurri hori gauzatzen bada, Hizkuntza Eskolak ez du zerbitzua euskaraz emateko modurik izanen.

Zergatik ateratzen dira lehiaketa publikora hizkuntza-eskakizunik gabeko plazak Iruñeko Hizkuntza Eskolan?

Nola konponduko du Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Eskolarentzat hain kaltegarria den egoera hori?

Nola bermatuko ditu Nafarroako Gobernuak Iruñeko Hizkuntza Eskolako ikasleen, profesionalen eta, oro har, erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak?

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00405. Galdera, Artistaren Estatutua Nafarroako errealitatera egokitzeari buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Artistaren Estatutua Nafarroako errealitatera egokitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilari Rebeca Esnaola andreaki, idatziz erantzun diezaion:

Zertan da Artistaren Estatutua Nafarroako errealitatera egokitzeko prozesua?

Iruñean, 2025eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-25/PES-00406. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Traumatologia Zerbitzuko medikuntzako lehenbiziko kontsultei buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Traumatologia Zerbitzuko medikuntzako lehenbiziko kontsultei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan.

Nafarroak eta Errioxak osasun-laguntzarako lankidetzaz hitzarmenak sinatu izan dituzte azken hamarkadetan. Hala ere, hitzarmen horiek eguneratu egin dira urteetan zehar, eta prestazioak eta jarduera aldatuz joan dira. Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Traumatologia Zerbitzua jarduera dela-eta urriaren 15ean egindako lan-bilkuran, NOUko Traumatologia Zerbitzuko buruak asistentzia ugari zehaztu zituen (osasun-prestazioak eta

beste erkidego batzuetako erabiltzaileentzako ebakuntza kirurgikoak); zehazki, Errioxako Autonomia Erkidegoko erabiltzaileak aipatu zituen gehienbat.

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

Medikuntzako zenbat lehen kontsulta egin da Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Traumatologia Zerbitzuan 2023an, 2024an eta 2025eko azarora arte, eta zenbat hurrengo kontsulta Errioxako Komunitateko erabiltzaileei, hitzarmenez babestuta egon ala ez, urtearen arabera zehaztuta?

Zenbat ebakuntza kirurgiko egin da Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Traumatologia Zerbitzuan 2023an, 2024an eta 2025eko azarora arte, eta zenbat egonaldi sortu da Errioxako Komunitateko erabiltzaileentzat, hitzarmenez babestuta egon ala ez, urtearen arabera zehaztuta?

Zer kostu ekonomiko izan du urtero NOUko Traumatologia Zerbitzuak Errioxako Erkidegoko erabiltzaileei egindako laguntza-lanak, asistentzialak zein farmazeutikoak, 2023an, 2024an eta 2025eko azarora arte, urtez urte zehaztuta?

Zer konpentsazio izan du NOZ-Osasunbideak osasun-prestazio horientatik, bai Errioxak SERISen Nafarroako Foru Komunitateko erabiltzaileei emandako osasun-laguntzako kontraprestazio gisa, bai Osasun Kohesiorako Funtsaren bidezko konpentsazio ekonomiko gisa, urtez urte zehaztuta?

Iruñean, 2025eko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

11-25/PES-00407. Galdera, gizarte-zerbitzuetako haurren eta nerabeen programan Maestro Ávila fundazioaren ikastetxeko adingabeak direla-eta irekitako espedienteei buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, gizarte-zerbitzuetako haurren eta nerabeen programan Maestro Ávila fundazioaren ikastetxeko adingabeak direla-eta irekitako espedienteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Eneka Maiz Ulaiarrek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Abartzuzako Udalak (Estellerria) urte hasieran saldu zuen Anderazko ikastetxe eta barnetegia izandakoa, zeina 2019az geroztik hutsik baitago. Errioxako Sociedad de Investigación y Estudios Generales (SEIG) inbertsio-taldeak enkante publiko bidez erosi zuen ikastetxe izandakoa, zeina Ahizpa Eskolapioek kudeatu baitzuten 97 urtez; hala dator jasota Abartzuzako Udalak 2024ko abenduaren 10ean onetsitako baldintza-agirian. Esleipena, Nafarroako Gobernuaren Kontratazio Atarian jasotzen denez, aurtengo otsailaren 8an egin zen; hasiera batean, barnetegi izandakorako hainbat erabilera hartu ziren gogoan: turismo-goitza, zahar-etxea eta, are, etxebizitzak.

Deierriko eta Gesalazko haranetako bizilagunek diote ikastetxe izandakoa erosi zuen enpresaren atzean ultrasukuineko komunitate erlijioso zismatiko

bat dagoela, urteak daramatzana Estellerrian kokatuta, non hainbat eraikin erosi baititu. Entitate hori Maestro Ávila fundazioa litzateke. Fundazio hori guxtienez ere 2009ko ekainetik dago Estellerrian; izan ere, Estatuko Aldizkari Ofizialak (BOE) Fundazioen Erregistroan inskribatuta dagoela argitaratu zuen orduan, Argiñaoko etxebizitza batean hain zuzen ere, Gesalazten.

Bestalde, gaur egun, Argiñaon ikastetxe bat dago Beangoetxea etxean, Maestro Ávila fundazioa izenez ezagutzen dena, eta, antza denez, erkidego horretako haurrak hartzen dituena.

– Gizarte-zerbitzuetako haurren eta nerabeen programak zenbat espediente ireki ditu Maestro Ávila fundazioaren ikastetxeko adingabeak direla-eta? Zer motatakoak dira espediente horiek? Zenbatek jarraitzen dute irekita une honetan, eta zer motatako jarduketak egiten ari dira haiekin?

– Haur eta nerabeak artatzeko taldeak zenbat espediente ireki ditu Maestro Ávila fundazioaren ikastetxeko adingabeak direla-eta? Zer motatakoak dira espediente horiek? Zenbatek jarraitzen dute irekita une honetan, eta zer motatako jarduketak egiten ari dira haiekin?

– Zenbat bisita egin dira Maestro Ávila fundazioaren ikastetxeko familien etxeetara, adingabeen babesgabetasuna dela-eta? Zer ondorio izan dituzte bisita horiek?

– Adingabearen Fiskaltzak esku-hartzerik eskatu al die udal nahiz foru mailako gizarte-zerbitzuei, Maestro Ávila fundazioaren ikastetxeko adingabeak direla-eta? Zenbat eta zer motatakoak izan dira?

– Maestro Ávila fundazioaren ikastetxe adingabeak direla-eta udal nahiz foru mailako gizarte-zerbitzuen esku-hartzeetakoren batetik abiatuta, egin al zaio jakinarazpenik poliziari edo Adingabearen Fiskaltzari? Zenbat eta zer motatakoak izan dira?

Iruñean, 2025eko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00408. Galdera, Beangoetxea etxean Maestro Ávila fundazioaren izenarekin ezarritako ikastetxeari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Beangoetxea etxean Maestro Ávila fundazioaren izenarekin ezarritako ikastetxeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Eneka Maiz Ulaiarrek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Abartzuzako Udalak (Estellerría) urte hasieran saldu zuen Anderazko ikastetxe eta barnetegia izandakoa, zeina 2019az geroztik hutsik baitago. Errioxako Sociedad de Investigación y Estudios Generales (SEIG) inbertsio-taldeak enkante publiko bidez erosi zuen ikastetxe izandakoa, zeina Ahizpa Eskolapioek kudeatu baitzuten 97 urtez; hala dator jasota Abartzuzako Udalak 2024ko abenduaren 10ean onetsitako baldintza-agirian. Esleipena, Nafarroako Gobernuaren Kontratazio Atarian jasotzen denez, aurtengo otsailaren 8an egin zen; hasiera batean, barnetegi izandakorako hainbat erabilera hartu ziren gogoan: turismo-egoitza, zahar-etxea eta, are, etxebizitzak.

Deierriko eta Gesalazko haranetako bizilagunek diote ikastetxe izandakoa erosi zuen enpresaren atzean ultrasukuineko komunitate erlijioso zismatikoa dagoela, urteak daramatzana Estellerrian kokatuta, non hainbat eraikin erosi baititu. Entitate hori Maestro Ávila fundazioa litzateke. Fundazio hori gutxienez ere 2009ko ekainetik dago Estellerrian; izan ere, Estatuko Aldizkari Ofizialak (BOE) Fundazioen Erregistroan inskribatuta dagoela argitaratu zuen orduan, Argiñako etxebizitza batean hain zuzen ere, Gesalazten.

Bestalde, gaur egun, Argiñan ikastetxe bat dago Beangoetxea etxean, Maestro Ávila fundazioa izenez ezagutzen dena, eta, antza denez, erkidego horretako haurrak hartzen dituena.

– Departamentuak ba al du Argiñako ikastetxe horren berri? Noiztik ari dira eskolak ematen?

– Zenbat aldiz bisitatu du Hezkuntzako Ikuskaritzak Beangoetxea etxea, Maestro Ávila fundazioak garatzen dituen hezkuntza-jardueren jarraipena egiteko?

– Zenbat adingabe daude eskolatuta ikastetxe horretan? Kurtsoen eta errolatze-lekuaren arabera.

– Zein ikastetxetan daude matrikulatuta Ugar, Abartzuzak, Hiriberri, Argiñao, Arzotz, Zirizako Etxeak, Bidaurre eta Aritzalako eskola-adineko adingabeak? Adinaren eta herriaren arabera.

– Ba al dakigu Pazifikoko Institutu Nazionalen eskolatutako adingaberik dagoen Deierri, Gesalatz eta Abartzuzako udalerrietan?

– Egiten al du Hezkuntza Departamentuak horren hezkuntza-ibilbidearen jarraipena eta trazarritatea?

– Ikasle horiek EDUCA plataforman sartuta al daude?

– Departamentuak egiten al du ikastetxearen hezkuntza- eta didaktika-esparruaren jarraipenik? Irakasgaiak, ordutegiak, curriculumak...

– Derrigorrezko ikasketak amaitzean daukaten titulazioa Hezkuntza Departamentuak homologatzen al du?

– Ba al dago sexuaren edo bestelako irizpideren baten arabera segregaziorik?

– Ikastetxean premia bereziko ikaslerik artatzen ote den frogarik ba al dago? Zer baliabide daukate horretarako?

– Eskola-garraioko zer linea dago gaur egun eremu horretan lizentzia duena? Nola garraiatzen dira ikasleak Argiñako ikastetxera?

– Informatu denaren arabera, Hezkuntza Departamentuak konpromisoa hartu zuen aldizkako jarraipena egiteko ikuskaritzak jakinarazten zuen egoerari buruz. Egiten al da jarraipen hori?

– Ba al dago adingabeak ikastetxe ofizialetan eskolatuta ez daudela aitortzen duen Hezkuntza Ikuskaritzaren txostenik?

– Ikastetxeko irakasleek badute kasuko titulazio ofiziala?

– Zein da irakasleen lan-egoera?

– Beangoetxea etxeko ikastetxeak ba al du ikastetxe-lizentziarik? Azpiegiturei buruz indarrean dagoen araudia betetzen du?

– Ikastetxeak ba al du eskola-jantokirik? Erregularizatuta al dago?

Iruñean, 2025eko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar
